

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Leioako (Bizkaia) «Bienaventurada Virgen María» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Hezkuntza Bereziko unitate bat irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena emateko dena. @ @ @

Leioako (Bizkaia) «Bienaventurada Virgen María» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita Hezkuntza Bereziko unitate bat irekitzeko eta jardunean jartzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimena ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, beharrezkoak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko dena (1998ko abuztuaren 31ko EHAA); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio Hezkuntza Bereziko unitate bat irekitzeko eta jardunean jartzeko, 2011-2012 ikasturteetik aurrera:

Kode-zenbakia: 48008999.

Izen espezifikoa: «Bienaventurada Virgen María».

Titularra: Madres Irlandesas.

Helbidea: Santsoena auzoa 1.

Udalerrria: Leioa.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena: Hezkuntza Bereziko unitate bat gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 4 unitate, bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat; 18 ikaspostu, unitateko.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostu.
- Lehen Hezkuntza: 18 unitate, 450 ikaspostu.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 14 unitate, 420 ikaspostu.
- Hezkuntza Berezia: unitate 1.

- Batxilergoko modalitateak: "Zientziak eta Teknologia" eta "Humanitateak eta Gizarte-zientziak"; 6 unitate eta 210 ikaspostu.

- Lanbide Heziketa:

Familia: Administrazioa. Administrazio Kudeaketa erdi-mailako heziketa-zikloa.

Edukiera: ziklo 1.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateko irakasleen titulazio akademikoari dagokionez. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 4a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.